

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko maiatzaren 15ean onartutako erabakiaren laburpena: erabaki horren bidez, ingurumen-jardunbide hoberenak aitortzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren Itun Berdea Sarien X. edizioaren oinarriak onetsi ziren

BDNS(Identif.): 917805.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean aurki daiteke (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/917805>).

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Xedea

Itun Berdea Sarien deialdiaren helburua da Itun Berdearen Komunitateari atxikitako erakundeengatik ingurumen-jardunbide onenak jendaurrean aitortzea, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat etorri. Beren jardueraren ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteko eta, horrela, tokiko produkzio-sistema ekoizpen eredu zirkular eta karbono baxu baterantz igarotzen laguntzeko abian jarri dituzten ingurumen-jardunbide onenak jendaurrean aitortuko dira.

Bigarrena. Onuradunak

Gehienez bi hautagaitza aurkeztu ahal izango dira enpresa bakoitzeko.

Erakunde guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

— Itun Berdearen Komunitateari atxikita egotea eta, Garapen Jasangarriaren Helburuak beteitzeko konpromisoaren adierazgarri, 2025-2026 urteetan jardunbide egokiak ezarri izana, prozesu, produktu eta/edo zerbitzuen ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteko.

— Indarrean dagoen araudiaren baldintzak betetzea eta indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, erlamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

— Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari buruzko 11. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako debekuren baten eraginpean ez egotea.

Zuzkidura ekonomikoa duen saria eskuratzeko, baldintza gehigarri hauek bete behar dira:

— Enpresa gisa legez eratuta egotea (industria eta merkataritza jardueretan edo irabazteko asmoarekin zerbitzuak ematen dituen erakundea).

— Enpresaren egoitza fisikoa edo helbide fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian egotea.

Itun Berdeari atxikitako erakunde hauek jaso ahalko dute ohorezko saria, betiere deialdian adierazitako baldintza orokorrak betetzen badituzte:

- Vitoria-Gasteizen erroldatu gabeko enpresak izatea.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte eta lanbide jarduerak egiten dituztenak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2026ko maiatzaren 15ean, ingurumen-jardunbide hoberenak aitorzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren Itun Berdea Sarien X. edizioaren oinarriak onetsi zituen.

Deialdia zein oinarriak udalaren web-orrian daude, ikusi nahi izanez gero (www.vitoria-gasteiz.org) eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Sari deialdi honek 6.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuetako 08.21.4331.489.85 partidaren kontura (Itun Berdea Sariak).

Deialdi honek bi sari mota ditu:

I. Zuzkidura ekonomikoa duen saria:

Enpresen tamainaren arabera hiru kategoria daude, eta 2.000,00 euroko zuzkidura ekonomikoa bakoitzerako:

- Mikroenpresen kategoria (1-9 langile dituzten enpresak).
- Enpresa txikien kategoria (10-49 langile dituzten enpresak).
- Enpresa ertain eta handien kategoria (50 langile edo gehiago dituzten enpresak).

Saria jasotzeko, indarrean dagoen zerga-araudia bete beharko da.

II. Zuzkidura ekonomikorik gabeko saria:

Ez du zuzkidura ekonomikorik; aitorpen publiko eta instituzionala baizik:

- Vitoria-Gasteizen erroldatu gabeko enpresak izatea.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarte eta lanbide jarduerak egiten dituztenak izatea, Vitoria-Gasteizkoak izan edo ez.
- Erakunde hautagaiez gain, erakunde hautagai batek egindako jardunbide egokia ezagutzen duten elkarteek ere aurkeztu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak, erakunde horrek baimena eman ondoren.

Aurkeztutako ekimen guztiei, sarituak izan ala ez, zabalkundea emango zaie, Vitoria-Gasteizek garapen jasangarriarekin hartua duen konpromisoari Itun Berdearen Komunitateak egiten dizkion ekarpenen erakusle diren aldetik.

Sariren bat nahiz guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu epaimahaiak, eskatzen diren kalitate-baldintzak betetzen dituzten praktikak aurkeztu ez badira.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2026ko irailaren 30era artekoa izango da hautagaitzak jasotzeko epea, biak barne.

Seigarrena. Epaimahaia

- Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua, edo hark ordezeko izendatzen duena.
- ACLIMA, Euskadiko ingurumen-sektorea biltzen duen erreferentziazko Klusterreko zuzendari nagusia, edo hark ordezeko izendatzen duena.
- Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saila: Iraunkortasun, Klima eta Energia Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 15a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ